

2006ko maiatzaren 16ean, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ez Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen den gaia aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIA.

1.-UDAL PLANGINTZARAKO ORDEZKO ARAUEN BERRAZTERPENARI
BIGARREN HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKOA BADA.

Aduna, 2006ko maiatzak 11.

ALKATEA.

2.006KO MAIATZAK 16.

EZ OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.
Antton Artola Ibarguren.
Javier Zabala Zabala.

Bertaratu gabeak:

Patxi Ormaetxea Otegi.
Miren Aburuza Alkorta.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta seiko maiatzaren hamaseiko hogeita bat orduak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

UDAL PLANGINTZARAKO ORDEZKO ARAUEN BERRAZTERPENARI BIGARREN HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKOA BADA.

Adunako Udaleko Alkateak, 2004ko ekainaren 3ko Alkatetza Ebazpen baten bidez Miguel Angel Irazabalbeitia eta Pedro Izaskun arkitektoek eta Pilar Del Valle abokatuak erredaktaturiko Adunako Udal Plangintzarako Ordezko Arauen Berrazterpenaren aurrerapena jendaurrean jartzea onartu zuen (G.A.O 2004-06-11). 2004ko uztailaren 20ko

Alkatetza ebazpen bidez epea 2004ko irailaren 30era arte luzatzea onartu zen (G.A.O 2004-07-28).

Epe barruan hogeita lau iradokizun aurkeztu ziren eta Adunako Udaleko Osoko Bilkurak (Udaleko teknikoen txostenetan oinarrituz) 2004ko abenduaren 14an egindako bileran iradokizunak erantzuen zituen.

Beraz, eta egindako iradokizunei emandako erantzunak jakinarazita Adunako Udaleko Osoko Bilkurak, 2.005eko martxoaren 1ean egindako Udalbatzan, aho batez, udal plangintzarako Ordezko Arauen Berrazterpenari hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Era berean, aho batez, erabakia Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta jendeurrean hirurogei eguneko epean alegazioak egiteko jartzea onartzen da. Aipaturiko erabakia Gara, Berria eta El Diario Vasco aldizkarietan ere argitaratuko da.

Espedientean zehar zenbait aldaketa garrantzitsu izan direlako, Adunako Udalbatzak, aho batez, Adunako Udal Plangintzarako Ordezko Arauen Berrazterpenari bigarren hasierako onarpena ematea erabaki du, jendeurrean hogeita hamar egunetako epean jarriaz, interesatuek beharrezko alegazioak egiteko. Iragarki hau Berria eta El Diario Vasco aldizkarietan ere argitaratu da.

Beste Aztergairik gabe, hogeita bat ordu eta hamabost minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.